

ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (C)

Otoitza

Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia;
eta, aingeruak esanik,
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunoi,
iguzu, Haren nekaldi eta gurutzearen bidez,
irits gaitezela biztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 7, 10-14

Begira, birjina haurdun dago.

Isaias Profetaren liburutik

Egun haietan, Jaunak honela hitzegin zion Akazi: «Eska iezaiozu Jaunari, zure Jaungoikoari, ezaugarri bat zuretzat, lurraren barrenean, nahiz zeruen goienean». Eta Akazek: «Ez diot eskatuko, ez dut tentatuko Jauna».

Orduan Isaiasek: «Entzun, Dabiden etxe: Gutxi al derizkiozue gizakientzat aspergarri izateari? Jaungoikoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago, eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izen, hau da: "Jaungoikoa gurekin"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 23, 1-2. 3-4ab. 5-6

R/.

Badator Jauna: Bera da Errege ospetsua.

Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen dutenak,
lurbira eta bertan bizi direnak.
Hark eman dizkio itsasoak oinarri,
eta ibaiak sendogarri. R/.

Jaunaren mendira nor igoko?
Haren toki santuan nor egongo?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituenak,
huskerietara jotzen ez duena. R/.

Horrelakoak hartuko du bedeinkapena Jaunarengandik,
zuzentasuna, salbatzaile duen Jainkoarengandik.
Hau da Haren bila dabilzanen taldea,
Jakoben Jainkoaren bila dabilzanena. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 1, 1-7

Jesu Kristo, haragiz Dabidengandik jaioa,
Jaungoikoaren Semea.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Paulo, Jesu Kristoren zerbitzaria, apostolu izateko deitua, Jaungoikoaren Ebanjeliorako bereizia;
Ebanjelio hori Liburu Santuetan Profeten ahoz agindua zegoen, eta Jaungoikoaren Semea dagokio,
Jesu Kristo gure Jaunari: haragiz Dabidengandik jaioa, eta Espiritu Santuak Jaungoikoaren Seme
ezarria; ahalmen guztiak hartu ditu Honek, hilen artetik biztu denez gero.
Harengandik hartu genuen guk grazia hau eta eginkizun hau: jentil guztiak sinesmenera ekartzea,
Haren izenaren aintzarako; haietakoak zarete zuek ere, Jesu Kristok deituak.
Grazia, beraz, eta bakea zuei, Jaungoiko gure Aitarengandik eta Jesu Kristo gure Jaunarengandik,
Erroman zaudeten Jaungoikoaren maite guztioi, bere herri santuko izatera deituoi.

EBANJELIOA: Mt 1, 18-24

Aleluia: Mt 1, 23

R/.
V/.

Aleluia.
Begira, birjinak sabelean sortu
eta semea izango du,
eta Emmanuel ezarriko diote izen,
hau da: «Jaungoikoa gurekin». R/.

Mariarengandik jaioko da Jesus.
Maria, Dabiden seme Joseren emaztea da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Jesu Kristoren jaiotzea honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin eskontzeko hitzeman
zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren
senar Josek, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea
erabaki zuen.

Baina, asmo hori gogoan zerabilela, Jaungoikoaren aingerua ametsetan azaldu zitzaion, eta esan
zion: «Dabiden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean
daraman haurra Espiritu Santuarengandik baitator. Semea izango du, eta:

izen, Horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Guzti hau gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin:

«Begira, birjinak sabelean sortu

eta semea izango du,

eta Emmanuel ezarriko diote izen,

hau da: "Jaungoikoa gurekin"».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

B urtean

I. IRAKURGAIA: 2 Sm 7, 1-5. 8b-12. 14a. 16

Dabiden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean.

Samuelen liburutik

Dabid erregea bere etxean bizi zela, eta Jaunak inguruko etsai guztietatik bakea eman zionean, honela esan zion erregek Natan profetari: «Begira, ni zedrozko etxean bizi naiz; Jaungoikoaren kutxa, berriz, larruzko txabolan».

Natanek erantzun zion erregeri: «Zoaz eta egizu bihotzak eskatzen dizun guztia, Jauna zurekin dago eta».

Baina gau hartan bertan Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Dabidi: "Hau dio Jaunak: Zuk eraiki behar al didazu etxea, nire bizileku izan dadin? Nik atara zintudan zeure larreetatik, artaldean atzetik, nire herriaren buru izan zintezan. Zurekin izan nauzu, ibili zaren alde guztietan. Nik garbitu dizkizut aurretik etsai guztiak. Eta Nik emango dizut zuri izen haundia, lurreko haundikiena bezalakoa. Leku bat emango diot Nik nire herri Israeli; han landatuko dut bera; leku hartan iraungo du, eta ez du gehiago estualdirik izango; gaizkileek ez dute zapalduko, hasiera hartan bezala, epaileak nire herriaren gain ipini nituen hartan bezala. Bakea emango dizut, etsai guztietatik. Haundi egingo zaitut eta jatorria sortuko dizut.

Zure egunak betetzen direnean eta zure gurasoekin atsedean hartzen duzunean, ondorengo bat emango dizut, zeure erraietatik aterea, eta sendotu egingo dut haren erreinua. Aita izango nau hark Ni, eta hura seme izango dut Nik.

Zure etxeak eta zure erreinuak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege aulkiak sendo iraungo du beti"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 88, 2-3. 4-5. 27 eta 29

R/.

**Jauna, zure maitasuna
abestuko dut
betiren beti.**

Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti,
zure leialtasuna adieraziko gizaldiz gizaldi.
Esana baituzu: «Maitasuna betiko dut eraiki»,
zure leialtasuna zeruan duzu sendo erazi. R/.

Egin dut nire hautatuarekin ituna,
Dabid nire morroiari zin egin niona:
«Betiko sendotuko dut zure hazia,
menderen mende eraikiko zure aulkia». R/.

Berak deituko nau: «Zu zaitut Aita,
ene Jainko, nire salbamenaren Harkaitza».
Gordeko diot beti nire maitasuna,
zintzo edukiko, egin nion ituna. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 16, 25-27

Betidaniko gizaldietan ezkutuan egon den misterioa,
orain agertua izan da.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Jesu Kristoren berri ona dela eta —betidaniko gizaldietan ezkutuan egon den misterioa, baina orain Profeten bidez agertua izan dena, eta betiereko Jaungoikoaren erabakiz adierazia, atzerri guztiak sinesmenera erakarriak izan daitezen—, hau da: nik hots egiten dudana Ebanjelioaren arabera, indar zaitzaketen Jaungoikoari, jakintsu bakarrari, aintza Jesu Kristoren bitartez, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

EBANJELIOA: Lk 1, 26-38

Aleluia: Lk 1, 38b

R/.

V/.

Aleluia.

Hona hemen ni, Jaunaren mirabea;
gerta bekit zuk diozun bezala. R/.

Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jaungoikoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Dabiden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen birjina, eta Maria zuen

izena.

Aingeruak, haren etxean sartuta, esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jaungoikoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta "Jesus" ezarriko diozu izen. Haundia izango da; Goigoikoaren Seme deituko dute; eta Jainko Jaunak Haren aita Dabiden errege aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta Haren erregetzak ez du azkenik izango».

Baina Mariak orduan aingeruari: «Nola daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zuregana, eta Goigoikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik zuregandik jaioko den Santua, Jaungoikoaren Seme deituko dute. Hara, zure ahaide Isabel ere, bere zaharrean, haurdun dago; eta agorra omen zena seigarren hilabetea aurkitzen da; Jaungoikoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

C urtean

I. IRAKURGAIA: Mi 5, 2-5a

Zuregandik jaioko da Israelgo agintaria.

Mikeas Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:

Zu, Efratako Belen, Judako herrisketan txiki hori,
zuregandik jaioko da Israelgo agintaria.

Aspaldikoa da haren sortzea,
betiereko egunetakoa.

Horregatik utzi egingo ditu Jaunak,
amak haur egin dezan arte.

Orduan haren senide hondarrak
Israelgo seme-alabetara itzuliko dira.

Zutituko da,
eta Jaunaren indarrez larratuko ditu,
Jaunaren, haien Jaungoikoaren, izen haundiz.

Lasai biziko dira;
haundi agertuko baita lurraren mugetaraino,
eta hura izango da gure bakea.

ERANTZUN SALMOA: Sal 79, 2a eta 3acd. 15-16. 18-19

R/.

**Jainko, birbiztu gaitzazu;
salba g**

ager ezazu.

Israelgo Artzain, adi ezazu,
Kerubin gainean eseri ohi baitzara,
zure indarrari eragiozu,
zatoz eta salba gaitzazu. R/.

Itzul zakizkigu, gudari taldeen Jainko,
begira zerutik, ikus, mahatsondo honi ager zakizkio:
zure eskuz aldatu duzun aldaska honi,
Zuk indartu duzun landareari. R/.

Emaiozu eskua, aukeratu duzun gizonari,
 Zeuk indartu duzun gizasemeari.
 Ez gara Zugandik urrunduko,
 gauzkazu bizirik eta zure izena dugu deituko. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 10, 5-10

Hona hemen Ni, zure nahia egiteko.

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Kristok, munduan sartzerakoan, hau dio:

«Oparirik eta eskaintzarik ez zenuen nahi izan,
 baina gorputza eman zenidan Niri;
 erreoparirik eta bekatuentzakorik
 ez zitzaizun atsegin.

Orduan esan nuen Nik,

Niretaz Liburuan idatzita dagoena:

Hona hemen Ni, Jainko, zure nahia egin dezadan».

Lehendabizi honela esaten du:

«Oparirik eta eskaintzarik,
 erreoparirik eta bekatuentzakorik,
 ez zitzaizun atsegin izan»,

hauek legez eskaintzen badira ere. Gero honela dio:

«Hona hemen Ni, zure nahia egin dezadan».

Lehendabizikoa kendu eta bigarrena jartzen du.

Nahi horren indarrez santu eginak gara, Jesu Kristok behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariarengatik.

EBANJELIOA: Lk 1, 39-45

Aleluia: Lk 1, 38b

R/.

V/.

Aleluia.

Hona hemen ni, Jaunaren mirabea;
 gerta bekit zuk diozun bezala. R/.

Nondik niri, nire Jaunaren ama niregana etortzea?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri

sartu, eta Isabeli agur egin zion.

Isabelek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Isabel Espiritu Santuaz bete zen, eta honela esan zuen oihu haundiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama niregana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!»

Oparigaien gainekoa

Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia
bere indarrez bete zuen Espirituak
santu egin bitza
zure aldarean jarri ditugun eskaintzak.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Begira: birjina haurdun dago, eta semea izango du; eta Emmanuel ipiniko dio izen.
Is 7, 14

Jaunartze ondorengoa

Betiereko erospenaren agiria harturik,
eskatzen dizugu, Jainko ahalguztiduna:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jaia,
hainbat eta gartsuago presta gaitezela
zure Semearen jaioteguna ospatzeko.
Jesu Kristo.

ABENDUALDIKO ASTEGUNETAN

Abenduko hilaren 17tik 24era arte

Ondoren datozen mezagaiak jarritako egunetan erabiltzen dira, igandean izan ezik: igandeak bere mezagai bereziak dauzka.

Abenduaren 17an

Sarrera ant.

Ekin oihuka, zeruok, alai zaitez, lurra: badator gure Jauna, eta bere pobreentzat badu errukia.
Ikus Is 49, 13

Otoitza

Gizonaren egile eta salbatzaile zaren Jainko,
betiereko Hitza den zure Semea

Maria beti Birjinaren sabelean
gizon egitea nahi izan duzu;
entzun gure otoitzak, eta iguzu,
gugatik gizon egin zen Kristo zure Seme bakarrak,
bere antzera zure seme-alaba egin gaitzala.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Has 49, 1-2. 8-10

Errege makila ez da Judarengandik urrunduko.

Genesis liburutik

Egun haietan, Jakobek bere semeei deitu eta honela esan zien:

«Zatozte; ondorengo egunetan gertatuko zaizuen
esango dizuet.

Bil zaitezte, Jakoben semeok, eta entzun;

entzun zuen aita Israeli:

Juda, zure senideek goretsiko zaituzte,
zure eskua etsaien lepoan edukiko duzu,
zure amaren semeak zure aurrean makurtuko dira.

Juda lehoi gazte bat da;

ehizetik zatoz, ene seme;

besoak luzatuta etzaten da,

lehoi arra bezala, lehoi emea bezala:

nor ausartu hari gogor egiten?

Errege makila ez da Judarengandik urrunduko,

ezta aginte makila ere haren belaun artetik,

berari zergak ordainduz,

herri guztiak menpean hartu arte».

ERANTZUN SALMOA: Sal 71, 1-2. 3-4ab. 7-8. 17

R/.

**Zuzentasuna garatuko da
haren egunetan,
eta bakea ugari betieran.**

Emaiozu, Jainko, zure auzia erregeri,
zure zuzentasuna errege semeari.
Zaindu beza zure herria zuzentasunez,
eta zure gizagaixoak zuzenbidez. R/.

Mendiek ekar biezaiote herriari bakea,
eta muinoek zuzenbidea.
Herriko xumeak babes bitza,
salbatu behartsuen seme-alabak. R/.

Zuzentasuna garatuko da haren egunetan,
bakea ugari ilargia itzali artean.
Nagusi izan bedi itsasotik itsasoraino,
Ibaitik lehor mugaraino. R/.

Betirako izan bedi haren izena,
eguzki argia adina haren izenaren iraupena.
Lurreko leinu guztiak harengan izango dira bedeinkatuak,
herri guztiek dohatsu aitortuko dute hura. R/.

EBANJELIOA: Mt 1, 1-17

Aleluia

R/.

V/.

duzuna!

bidea. R/.

Aleluia.

Goigoikoaren jakinduria,
dena bizkor eta gozo antolatzen

Zatoz, eta erakus iezaguzu salbamen

Egun bakoitzerako jartzen den Ebanjelio aurreko txatalaren ordeztu, beste bat har daiteke, or. ematen direnetatik.

Dabiden seme Jesu Kristoren jatorria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Abrahanen seme eta Dabiden seme Jesu Kristoren jatorri liburua. Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak, Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esron, Esronek Aran, Aranek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonek Salmon, Salmonen Rajabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jeselek Dabid erregea.

Dabidek, Uriasen emazte izanarengandik, Salomon sortu zuen, Salomonek Roboan, Roboanek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joran, Joranez Ozias, Oziasek Joatan, Joatanek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias, Josiasen, Babiloniako erbestealdian, Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta Babiloniako erbestealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen

Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakin, Eliakinek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akin, Akinek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob, Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariarengandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Dabidenganaino; hamalau gizaldi, Dabidengandik Babiloniako erbestealdiraino; eta hamalau gizaldi, Babiloniako erbestealдитik Kristorenganaino.

Oparigaien gainekoa

Santu egin, Jauna, zeure Elizaren dohainak;
eta iguzu, misterio miragarri honetan aurki dezagula
indartzen eta bizkortzen gaituen ogia.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Hara, badator herri guztiek nahi zutena, eta aintzaz beteko da Jaunaren etxea.
Ikus Ag 2, 8

Jaunartze ondorengoa

Zure dohain santuez ase gaituzun Jainko ahalguztiduna,
zure Espirituaren suak biztu gaitzala,
Jauna datorrenean argi distiratsu izan gaitezen Haren aurrean.
Jesu Kristo.

Abenduaren 18an

Sarrera ant.

Joanek bildots bezala iragarri zigun Mesias errege etorriko da.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
bekatuaren uztarri zaharrean lotuta gaude aspaldidanik;
iguzu, behin betiko aska gaitzala,
itxaroten dugun zure Semearen jaiotza berriak.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Jr 23, 5-8

Legezko muskil bat sortu diot Dabidi.

Jeremias Profetaren liburutik

«Badatoz egunak —dio Jaunak—,
eta Dabidi legezk muskil bat sortuko diot.
Errege zentzuduna izango da;
eskubidea eta zuzentasuna ezarriko ditu lurrean.
Haren egunetan Juda salbatuko da
eta Israel kezkarik gabe biziko.
Eta hau izango du izen:
"Jauna gure zuzentasuna".

Badatoz, beraz, egunak —dio Jaunak—, eta egun horietan ez da gehiago esango: "Ala Jauna, israeldarrak Egiptotik atera zituen!"", baizik eta esango da: "Ala Jauna, Israelgo seme-alabak iparraldetik eta banatuta zeuzkan alde guztietatik atera zituen, eta beren lurrean hizitzeko ekarri zituen!"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 71, 1-2. 12-13. 18-19

R/.

**Zuzentasuna garatuko da
haren egunetan,
eta bakea ugari betieran.**

Emaiozu, Jainko, zure auzia erregeri,
zure zuzentasuna errege semeari.
Zaindu beza zure herria zuzentasunez,
eta zure gizagaixoak zuzenbidez. R/.

Onik aterako baitu oihuka ari den jende xehea,
eta laguntzailerik ez duen dohakabea.
Apalarentzat eta behartsuarentzat izango du errukia,
salbatuko du behartsuen bizia. R/.

Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa,
mirariak egiten bakarra!
Bedeinkatua Haren izen ederra betiren beti,
eta Haren aintzaz lurbira osoa bete bedi!
Amen, amen. R/.

EBANJELIOA: Mt 1, 18-24

Aleluia

R/.

V/.

zeniona!

indartsuaz. R/.

Aleluia.

Israel etxeko Artzain,

Moisesi Legea Sinai mendian eman

Zatoz, eta aska gaitzazu zure beso

Mariarengandik jaioko da Jesus.

Maria, Dabiden seme Joseren emaztea da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Jesu Kristoren jaiotzea honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen.

Baina, asmo hori gogoan zerabilela, Jaungoikoaren aingerua ametsetan azaldu zitzaion, eta esan zion: «Dabiden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra, Espiritu Santuarengandik baitator. Semea izango du, eta zuk "Jesus" ezarriko diozu izen, Horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Guzti hau gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin:

«Begira, birjinak sabelean sortu

eta semea izango du,

eta "Emmanuel" ezarriko diote izen,

hau da: "Jaungoikoa gurekin"».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Oparigaien gainekoa

Jauna, eskaintzera goazen opariak

zeure gogoko egin gaitzala;

eta egizu, Bera hilkor eginik,

gu hilezkor egin gaituen Kristo zure Semeak

eman diezagula betiko bere bizian parte izatea.

Errege bizi baita.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Emmanuel ezarriko diote izen, hau da: «Jaungoikoa-gurekin».

Mt 1, 23

Jaunartze ondorengoa

Lagundu, Jauna, bihotz onez zeure Elizari,
 behar bezala presta ditzagun
 hurbil diren gure erospeneko jaiak.
 Jesu Kristo.

Abenduaren 19an

Sarrera ant.

Etortzekoa, laster, oso laster etorriko da, ez du luzatuko; eta ez da gehiago beldurrik izango gure lurrean, Bera baita gure Salbatzailea.
 Ikus Heb 10, 37

Otoitza

Jainko Jauna, Maria Birjina ama eginez,
 erakutsi diozu munduari zeure aintzaren distira;
 iguzu, Kristo gizon eginaren misterioa
 fede garbiz sinets dezagula
 eta bihotz apalez goretsi.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ep 13, 2-7. 24-25a

Aingeruak Sansonen jaiotzea iragartzen du.

Epaileen liburutik

Egun haietan, bazen Tsoran gizon bat Danen leinukoa, Manoaj izenekoa; haren emaztea agorra eta haurgabea zen. Emazte horri Jaunaren aingerua agertu zitzaion, eta honela mintzatu: «Agorra zara, bai, eta haurrik gabea; baina begira, hemendik aurrera ez edan ardorik, ez edari bizirik; ez jan ezer zikinik. Haurdun gertatuko baitzara, eta seme bat izango duzu. Ez bedi sar haren burura bizar labanik, haurrak amaren sabeletik "nazir" izan behar du eta Jainkoarentzat. Hura hasiko da Israel salbatzen filistearren eskuetatik».

Joan zen emaztea senarrarengana eta esan zion: «Jaungoikoaren gizon bat etorri zait. Jainko aingeruaren itxura zuen; izugarria. Ez diot galdetu nondik zetorren; berak ere ez dit esan bere izenik. Baina honela esan dit: "Begira, haurdun gertatuko zara, eta seme bat izango duzu. Hemendik aurrera, beraz, ez edan ardorik, ez edari bizirik, eta ez jan ezer zikinik; amaren sabeletik heriotzaraino haurrak "nazir" izan behar du eta Jainkoarentzat"».

Emazteak semea izan zuen, eta Sanson ezarri zion izen. Hazi zen haurra, eta Jaunak bedeinkatu zuen; eta Jaunaren espirtua Sansoni eragiten hasi zen.

ERANTZUN SALMOA: Sal 70, 3-4. 5-6ab. 16-17

R/.

**Ahoa betea neukan zure
gorespenez,
egun osoan zure ederpenez.**

Izan zakizkit gorde harkaitz,
gaztelu sendo ni salbatzeko,
nire harkaitz eta gaztelu Zu baitzaitut.
Ene Jainko, aska nazazu gaiztoaren eskutik,
bihurrien eta zapaltzaileen ukabletik. R/.

Zu baitzaitut, Jauna, nire uste ona,
Zu, Jauna, gazte nintzenetik nire itxaropena.
Zugan tinkatu naiz amaren sabeletik,
amaren errailetatik laguntzaile zintudan. R/.

Adieraziko dut Jaunaren lan bikaina,
oroitaraziko zurea bakarrik den garaipena.
Zuk didazu, Jauna, gazte nintzenetik irakatsi,
orain arte ditut zure mirariak iragarri. R/.

EBANJELIOA: Lk 1, 5-25

Aleluia

R/.

V/.

Aleluia.

Jeseren zuhaitzondoko kimu berri,
herri guztien ikurrintzat jarria!
Zatoz, eta salba gaitzazu; ez luza.

R/.

Gabriel aingeruak
Joan Bataiatzailearen jaiotzea iragartzen du.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Judeako errege Herodesen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren sailekoa; Isabel zuen emazte, Aaronen ondorengoa. Biak zintzoak ziren Jaungoikoaren aurrean; hutsegiterik gabe bizi ziren Jaunaren lege eta agindu guztietan. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Isabel, eta biak urteetan aurreratua.

Zakarias, bere sailekoekin, Jaungoikoaren aurrean zerbitzu egiten ari zela, Jaunaren sentutegian

sartzea egokitu zitzaion, apaiz legeak agintzen zuen eran, intzentsua eskaintzera. Intzentsua eskaintzerakoan herri osoa otoitzean ari zen atarian.

Eta Jaunaren aingerua agertu zitzaion, zutik, intzentsu aldarearen eskuinetan. Hura ikustean, izutu zen Zakarias, eta beldurrak hartu zuen.

Aingeruak, ordea, esan zion: «Ez izan beldurrik, Zakarias: entzuna izan da zure eskaria; zure emazte Isabelek seme bat emango dizu, eta zuk "Joan" ezarriko diozu izen. Poz haundia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, haundia izango baita Jaunaren aurrean; ez du edango ardorik, ez edari bizirik; gainera Espiritu Santuaz beteko da, amaren sabelean bertan; eta israeldar asko bihurtuko da Jaunarengana, bere Jaungoikoarengana; Jaunaren aurretik ibiliko da, Eliasen espirituz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskidetzen, bihurriei zintzoen sena ematen eta Jaunarentzat herri egoki bat prestatzen».

Zakariasek esan zion aingeruari: «Zertatik ezagutuko dut hori? Zaharra bainaiz eta nire emaztea urteetan aurreratua».

Aingeruak erantzun zion «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; Berak bidali nau zuri hitzegitera, berri on hau emateko. Baina, begira: mutu geldituko zara, hitzik ezin eginez, hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian bete behar dutenak».

Bitartean herria Zakariasen zain zegoen eta harrituta, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Handik ateratakoan, hitzik ezin egin zien, eta ezagutu zuten ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaion; mutu jarraitzen baitzuen.

Bere zerbitzu egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuren buruan, haren emazte Isabel haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta honela zioen bere baitarako: «Jaunari zor diot hau; Berak kendu dit nire lotsakizun hori jendearen aurrean».

Oparigaien gainekoa

Begi onez begira, Jauna,
zeure aldarera ekarri ditugun dohain hauei:
gure ezerezak eskaintzen duena
zure indarrak santu egin dezan.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Agertuko zaigu Goiz Eguzkia gainetatik, gure oinok bake bidean zuzentzera.
Lk 1, 78-79

Jaunartze ondorengoa

Eskerrak Zuri, Jainko ahalguztidun Horri,
Zuk emandako dohainengatik;
biztu ezazu gugan Kristoren bidera ateratzeko gogoa,

bihotz garbiz ospa dezagun gure Salbatzailearen jaiotza.
Errege bizi baita.

Abenduaren 20an

Sarrera ant.

Kimu berri bat sortuko da Jeseren zuhaitzondotik; eta Jaunaren aintzaz beteko da lur osoa, eta ikusiko dute guztiek Jaungoikoaren salbamenena.

Ikus Is 11, 1; 40, 5; Lk 3, 6

Otoitza

Jainko Jauna, Birjina errugabeak,
aingeruaren berria entzutean
zure nahiari baietz esanez,
zure Seme gizon egina sortu zuen bere sabelean,
eta honela, Espiritu Santuaren egitez,
Jainkoaren jauretxe bihurtu zen;
iguzu, guk ere, Hark bezala,
zure nahiari umilki jarrai diezaioigula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 7, 10-14

Begira, birjina haurdun dago.

Isaias Profetaren liburutik

Egun haietan, Jaunak honela hitzegin zion Akazi: «Eska iezaiozu Jaunari, zure Jaungoikoari, ezaugarri bat zuretzat, lurraren barrenean, nahiz zeruen goienean». Eta Akazek: «Ez diot eskatuko, ez dut tentatuko Jauna».

Orduan Isaiasek: «Entzun, Dabiden etxe: Gutxi al derizkiozue gizakientzat aspergarri izateari? Jaungoikoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago, eta semea izango du; Emmanuel ezarriko dio izen, hau da: "Jaungoikoa gurekin"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 23, 1-2. 3-4ab. 5-6

R/.

Badator Jauna: Bera da Errege ospetsua.

Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen dutenak,
lurbira eta bertan bizi direnak.
Hark eman dizkio itsasoak oinarri,
eta ibaiak sendogarri. R/.

Jaunaren mendira nor igoko?
Haren toki santuan nor egongo?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituen,
huskerietara jotzen ez duena. R/.

Horrelakoak hartuko du bedeinkapena Jaunarengandik,
zuzentasuna, salbatzaile duen Jainkoarengandik.
Hau da Haren bila dabiltzanen taldea,
Jakoben Jainkoaren bila dabiltzanena. R/.

EBANJELIOA: Lk 1, 26-38

Aleluia

R/
V/.

erreinuko atear.

Aleluia.
Dabiden etxeko giltza!
Zuk irekitzen dituzu betiereko

Zatoz, eta aska itzazu
ilunbetan giltzapetuta daudenak. R/.

Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Seigarren hilabetea, Gabriel aingerua bidali zuen Jaungoikoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Dabiden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen birjina, eta Maria zuen izena.

Aingeruak, haren etxean sartuta, esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jaungoikoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta "Jesus" ezarriko diozu izen. Haundia izango da; Goigoikoaren Seme deituko dute; eta Jainko Jaunak Haren aita Dabiden errege aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta Haren erregetzak ez du azkenik izango».

Baina Mariak orduan aingeruari: «Nola daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zuregana, eta Goigoikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik zuregandik jaioko den Santua, Jaungoikoaren Seme deituko dute. Hara, zure ahaide Isabel ere, bere zaharrean, haurdun dago; eta agorra omen zena seigarre

Jaungoikoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, zeure Semearen opari bakarra eskaintzeko
ekarri ditugun dohain hauek,
misterio honetan parte izanez,
bete-betea har ditzagun
orain sinesmenez itxaroten ditugun ondasunak.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Aingeruak esan zion Mariari: begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta Jesus ezarriko diozu izen.

Lk 1, 31

Jaunartze ondorengoa

Zaindu gaitzazu zeure babesean, Jauna,
zeruko dohainez indarberitu gaituzunok;
eta iguzu, sakramentu hau
egiazko pozaren eta bakearen iturri izan dakigula.
Jesu Kristo.

Abenduaren 21ean

Sarrera ant.

Laster dator jaunen Jauna, eta Emmanuel ezarriko diote izen: «Jaungoikoa-gurekin».

Ikus Is 7, 14; 8, 10

Otoitza

Bihotz onez entzun, Jauna, zeure herriaren otoitzak;
zure Semea gizon eginik etortzeaz pozten direnek,
Hura aintzaz etorriko denean,
betiereko bizitza irits dezaten.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ab Ed 2, 8-14

Hara non datorren,
mendiz mendi lasterka, nire maitea.

Abesti Ederrenaren liburutik

Nire maitearen hitz hotsa!
Hara non datorren, mendiz mendi lasterka,
muinoz muino jauzika;
oreina dirudi nire maiteak,
eta basantxumea.
Han dago, nire harresiaren atzean,
leihoetatik kirika, sare artetik begira.
Hara, hizketan hasi zait nire maitea:
«Jaiki zaitez, ene maite hori,
ene eder hori, eta zatoz.
Igaro da negua; atertu du, joan dira euriak;
agertu dira loreak gure lurrian,
etorri da kima garaia;
usapalak jo du gure lurrian.
Pikondoa aletan dago;
mahastiak loretan, usaina dariela.
Jaiki, ene adiskide, ene eder hori,
eta zatoz niregana.
Harkaitz zuloetako nire usoa,
horma txuloetakoa:
erakus iezaazu zure aurpegia,
entzun dezadala zure mintzoa belarrietan;
gozoa baita zure mintzoa,
eta zure aurpegia ederra».

Edota: So 3, 14-18a

Jauna izango da Israelgo errege zure erdian.

Sofonias Profetaren liburutik

Egin poz irrintzi, Siongo alaba!
Egin oihu alai, Israel!
Poztu zaitez bihotz-bihotzez,
Jerusalengo alaba!

Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia,
 atzerarazi ditu zure etsaiak.
 Jauna izango da Israelgo errege zure erdian;
 ez duzu gehiago beldurrik izango.
 Egun hartan, honela esango zaio Jerusalem:
 «Ez izan beldurrik, Sion!
 Ez bitez erori zure eskuak!
 Jauna, zure Jaungoikoa, zure erdian dago,
 gudari salbatzaile!
 Pozaren pozez alaitzen da zuregatik;
 maite zaitu eta pozez jauzika dabil,
 jaiegunez bezala».

ERANTZUN SALMOA: Sal 32, 2-3. 11-12. 20-21

R/.

**Poztu zaitezte, zintzoak,
 Jaunarengan,
 kanta iezaiozue kantu berri.**

Ospa ezazue Jauna kitaraz,
 egiozue soinu hamar hariko salteriaz.
 Kanta iezaiozue kantu berri,
 turutaz ongi eresi. R/.

Jaunaren asmoek badiraute betieran,
 Haren barneko erabakiek gizaldi guztietan.
 Bai dohatsu, Jauna Jainko duen jendea,
 bere oinorde hautatu duen herria. R/.

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,
 lagun eta babes Bera baitugu.
 Harengan pozten zaigu barrena,
 Haren izen santuagan dugu itxaropena. R/.

EBANJELIOA: Lk 1, 39-45

Aleluia

R/.

V/.

Aleluia.
 Emmanuel, gure Errege eta
 legegile!
 Zatoz, e

Jauna, gure Jainkoa. R/.

Nondik niri, nire Jaunaren ama niregana etortzea?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera; eta Zakariasenean sartu, eta Isabeli agur egin zion.

Isabelek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Isabel Espiritu Santuaz bete zen, eta honela esan zuen oihu haundiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama niregana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!»

Oparigaien gainera

Bihotz onez hartu, Jauna, zeure Elizaren dohain hauek;
errukiturik, Zuk eman baitizkiozu eskaintzeko,
eta Zuk egingo dituzu gure salbamenerako sakramentu.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko II., or.

Jaunartze ant.

Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!
Lk 1, 45

Jaunartze ondorengoa

Eukaristia honetan parte hartzeak, Jauna,
ekar diezaiola zure herriari betiko laguntza,
zure zerbitzari leial izanez,
gorputz-arimen salbamera lor dezan.
Jesu Kristo.

Abenduaren 22an

Sarrera ant.

Ateburuok gora zaitezte; aspaldiko ateak, luza zaitezte, Errege ospetsua sar dadin.
Sal 23, 7

Otoitza

Jainko Jauna, zeure Semearen etortzeaz salbatu duzu
bekatuaren eta heriotzaren menpean zegoen gizona;
egizu, Haren gizon egitea umilki aitortzen dutenek,
erospenaren fruituak ere irits ditzatela.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Sm 1, 24-28

Anak eskerrak ematen ditu, bere semearen jaiotzeagatik.

Samuelen liburutik

Egun haietan, Anak Siloko Jaunaren etxera eraman zuen Samuel. Eraman zituen, baita, hiru urteko zezen bat, zaku bat irin eta zahagi bat ardo. Haurra oraindik txikia zen.

Zezena oparitarako hil zuten, eta haurra Eliri eraman zioten. Anak honela esan zuen: «Ene jauna! Ni naiz, hemen zure ondoan Jaunari otoizka egondako emakumea. Haur hau eskatzen nion; eta Jaunak eman dit eskatzen niona. Horregatik, Jaunari eskaintzen diot; bere bizitzako egun guztietan Jaunari eskainia gelditzen da». Eta bertan Jauna gurtu zuten.

ERANTZUN SALMOA: 1 Sm 2, 1. 4-5. 6-7. 8abcd

R/.

**Jauzika daukat bihotza
Jaunarengan,
nire Salbatzailearengan.**

Jauzika daukat bihotza Jaunarengan,
jaiki da nire bekokia Jainkoarengan.
Etsaien aurka zabal mintzo bainaiz,
zure laguntzaz poztzen bainaiz. R/.

Bizkorren uztaiak eten ohi dira,
ahulak, osterak, kemenez jazten dira.
Aseak, ogi orde doaz lanera,
goseak, berriz, lanetik atsedenera.
Zazpitan erdi da agor zena,
agortu da seme asko zituen. R/.

Heriotza eta bizia Jaunak ditu ematen,
Berak Leizeratzen du eta handik ateratzen.
Jaunak du pobre eta aberats egiten,

beheratzen eta goratzen. R/.

Hautsetatik jaiki erazten du behartsua,
simaurretatik altxatzen txiroa;
haundikien artean eser erazi dezan,
eta aulki garaitsu bat eman. R/.

EBANJELIOA: Lk 1, 46-56

Aleluia

R/.

V/.

R/.

Aleluia.

Atzerrien Errege, Elizaren
giltzarria!

Zatoz, eta salba ezazu
lurreko hautsez egin zenuen gizona.

Haundiak egin dizkit Ahalguztidunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Mariak honela esan zuen:
«Haundiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat nire barruna;
Jainkoa baita nire salbamena,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.
Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,
haundiak egin baitizkit Ahalguztidunak:
Santua da Haren izena,
eta Haren errukia gizaldiz gizaldi,
beldur diotenengana.
Bere besoaren indarra erabili du,
buru-harroak suntsitu ditu;
bota ditu beren aulkitik haundikiak,
eta gora jaso ditu ezerezak;
ondasunez bete ditu gose zeudenak,
eta esku-hutsik bidali asko zutenak.
Bere gain hartu du Israel, bere morroia,
errukia gogora zaiola;
gure gurasoei hala zien hitzeman,
Abrahani eta ondorengoei betiko esana».

Hiru hilabete inguru egon zen Maria Isabelekin, eta gero etxera joan zen.

Oparigaien gainekoa

Zure bihotz onean uste on dugula, etorri gara, Jauna,
geure dohainekin zure aldarera;
egizu, zure graziak garbi gaitzala
sakramentu honen zerbitzariok.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Haundiesten du nire arimak Jauna, haundiak egin baitizkit Ahalguztidunak.
Lk 1, 46. 49

Jaunartze ondorengoa

Hartu dugun zure sakramentuak, Jauna,
eman diezagula indar,
behar diren egintzekin
Salbatzailearen bidera irten gaitzen
betiko zorionaren saria lortzeko.
Jesu Kristo.

Abenduaren 23an

Sarrera ant.

Haur bat jaio zaigu gaur, eta haren izena: Jaungoiko Indartsu; lurreko leinu guztiak Harengan izango dira bedeinkatuak.
Ikus Is 9, 6; Sal 71, 17b

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Seme gizon eginaren jaioteguna hurbiltzean,
Zuri otoitzez gaude:
Maria Birjinaren sabelean gizon egin
eta gure artean bizi nahi izan zuen zure Hitza
erruki dakigula guri, zure zerbitzari ezerezoi.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

IRAKURGAIA: Ml 3, 1-4; 4, 5-6

Elias profeta bidaltzen dizuet,
Jaunaren eguna etorri baino lehen.

Malakias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jaungoiko Jauna:

«Begira, hor bidaltzen dut Nik
nire mezularia nire aurretik,
bidea prestatzera.

Berehala etorriko da santutegira
zuek bila zabiltzaten Jauna,
eta zuek irrikatzen duzuen
elkargo mezularia.

Horra non datorren
—dio diren guztien Jaunak—.

Nork jasan Haren etorrera eguna?
Nor zutik egon, Hura etortzen denean?

Urtzailearen sua bezala izango da,
lisiagilearen zurigarria bezala;
zilarra garbitzen duen
urtzailea bezala ariko da;
zilarra eta urrea bezala
garbituko ditu Lebiren seme-alabak;
eta behar bezala eskainiko diote
oparia Jaunari.

Orduan atsegin izango zaio Jaunari
Judako eta Jerusalengo oparia,
lehengo urteetan bezala».

«Hara, Elias profeta bidaltzen dizuet,
Jaunaren egun haundi izugarria etorri baino lehen.
Gurasoen bihotzak seme-alabengana bihurtuko ditu,
eta seme-alabenak gurasoengana,
lurra hondatzera etor ez nadin».

ERANTZUN SALMOA: Sal 24, 4-5. 8-9. 10 eta 14

R/.

askatasuna.

**Zuti zaitetze eta jaso zuen
buruak:
hurbiltzen ari da zuen**

Erakuts niri, Jauna, zure bideak,
adierazi zure bideskak.
Eraman nazazu zure egia bidetik, eta argitu,
Zu baitzara nire Jainko salbatzaile,
Zu zaitut egun osoan nire itxaropide. R/.

On eta zuzen da Jauna,
horregatik erakusten die hobendunei bidea.
Apalak zuzenbidez daramatza,
erakusten die bere bidea apalei. R/.

Jaunaren bideska guztiak grazia eta leialtasuna,
Haren ituna eta aginduak gordetzen dituztenentzat.
Etxeko ditu Jaunak beldur diotenak,
erakusten die bere ituna. R/.

EBANJELIOA: Lk 1, 57-66

Aleluia

R/.
V/.

Aleluia.
Atzerrien Errege, Elizaren
giltzarria!
Zatoz, eta salba ezazu
lurreko hautsez egin zenuen gizona.

R/.

Joan Bataiatzailearen jaiotzea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Etorri zitzaion ordua Isabeli, eta semea izan zuen. Entzun zuten auzokoek eta ahaideek Jaunak egin zion erruki haundia, eta zorionak ematen zizkieten.

Zortzigarren egunean, haurra erdaintzera eramane zuten, eta "Zakarias" deitzen zioten, aitari bezala. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! "Joan" izango du izena». Haiek, berriz: «Ez duzue zuen senitartean inor, izen hori duenik».

Orduan aitari keinuka hasi zitzaizkion, ea zer izen eman nahi zion haurrari. Eta hark, idatz-ohol bat eskatu, eta idatzi zuen: «"Joan" du bere izena». Eta denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean askatu zitzaion mingaina, eta hitzegiten hasi zen eta Jaungoikoa goستن.

Beldurrak hartu zituen auzokoak; eta berri hau Judeako mendialde guztietan zabaldu zen. Entzuten zutenek, beren barruan pentsaka, honela zioten: «Zer izango ote da haur hau?» Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Oparigaien gainekoa

Eskaintzen dizugun opari honek, Jauna,
bake gaitzala Zurekin;
horrela, grazian indarturik,
gure Salbatzailearen jaiotza ospa dezagun.
Errege bizi baita.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Horra, atean nago ate joka. Norbaitek nire mintzoa aditzen badu, eta atea irekitzen badit,
berarengana sartuko naiz, eta elkarrekin afalduko dugu.
Apk 3, 20

Jaunartze ondorengoa

Zeruko dohainez ase dituzunei,
emaiezu, arren, zeure bakea,
argiak bizturik, beldurrik gabe irten gaitezen
datorkigun zure Seme maitearen bidera.
Errege bizi baita.

Abenduaren 24an

Goizeko Meza

Sarrera ant.

Garaia bete zenean, Jaungoikoak bere Semea bidali zuen lurrera.
Ikus Ga 4, 4

Otoitza

Zatoz laster, Jesus Jauna, ez luza,
zure etorrerak poztu ditza eta indartu
beren uste osoa zure bihotz onean dutenak.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: 2 Sm 7, 1-5. 8b-12. 14a. 16

Dabiden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean.

Samuelen liburutik

Dabid erregea bere etxean bizi zela, eta Jaunak inguruko etsai guztietatik bakea eman zionean, honela esan zion erregek Natan profetari: «Begira, ni zedrozko etxean bizi naiz; Jaungoikoaren kutxa, berriz, larruzko txabolan».

Natanek erantzun zion erregeri: «Zoaz eta egizu bihotzak eskatzen dizun guztia, Jauna zurekin dago eta».

Baina gau hartan bertan Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Dabidi: "Hau dio Jaunak: Zuk eraiki behar al didazu etxea, nire bizileku izan dadin? Nik atera zintudan zure larreetatik, artaldean atzetik, nire herriaren buru izan zintezan. Zurekin izan nauzu, ibili zaren alde guztietan. Nik garbitu dizkizut aurretik etsai guztiak. Eta Nik emango dizut zuri izen haundia, lurreko haundikiena bezalakoa. Leku bat emango diot Nik nire herri Israeli; han landatuko dut bera; leku hartan iraungo du, eta ez du gehiago estualdirik izango; gaizkileek ez dute zapalduko, hasiera hartan bezala, epaileak nire herriaren gain ipini nituen hartan bezala. Bakea emango dizut, etsai guztietatik. Haundi egingo zaitut eta jatorria sortuko dizut. Zure egunak betetzen direnean eta zure gurasoekin atsedean hartzen duzunean, ondorengo bat emango dizut, zeure errailetatik aterea, eta sendotu egingo dut haren erreinua. Aita izango nau hark Ni, eta hura seme izango dut Nik.

Zure etxeak eta zure erreinuak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege aulkiak sendo iraungo du beti"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 88, 2-3. 4-5. 27 eta 29

R/.

**Jauna, zure maitasuna
abestuko dut
betiren beti.**

Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti,
zure leialtasuna adieraziko gizaldiz gizaldi.

Esana baituzu: «Maitasuna betiko dut eraiki»,
zure leialtasuna zeruan duzu sendo erazi. R/.

«Egin dut nire hautatuarekin ituna,
Dabid nire morroiari zin egin niona:
Betiko sendotuko dut zure hazia,
menderen mende eraikiko zure aulkia». R/.

Berak deituko nau: «Zu zaitut Aita,
ene Jainko, nire salbamenaren Harkaitza».

Gordeko diot beti nire maitasuna,
zintzo edukiko, egin nion ituna. R/.

EBANJELIOA: Lk 1, 67-79

Aleluia

R/.

V/.

direnak. R/.

Aleluia.

Goiz-eguzki, betiko argiaren
distira,

zintzoen eguzkia!

Zatoz, eta argi itzazu

ilunbetan eta herio itzalean bizi

Agertuko zaigu Goiz-eguzkia gainetatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Zakarias, Joanen aita, Espiritu Santuaz beterik, profeta bezala mintzatu zen, esanez:

«Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa,

agertu eta bere herria askatu duena;

salbamen indarra digu eman,

bere morroi Dabiden etxean.

Hala hitzeman baitzuen bere santuen bidez,

behinola bere profeta zituenen bidez:

salbamena gure etsaien menpetik,

gorroto gaituzten guztien eskutik.

Horrela egin die gure gurasoei erruki,

bere elkarte santuaz oroiturik;

egin baitzion gure guraso Abrahami zin hitza,

Berak emango zigula:

Gure etsaien eskutik gu aterata, beldur barik,

izan gaitezen Haren zerbitzari;

zintzo eta zuzen Beraren aurrean,

gure egun guztietan.

Zu, berriz, haurra,

Goigoikoaren profeta deitua izango zara,

Jaunaren aurpegi aurretik joango baitzara

Hari bidea prestatzera;

erakustearren Haren herriari salbamena,

beren bekatuen barkamena.

Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik,

agertuko zaigu Goiz-eguzkia gainetatik;

ilunbetan eta herio itzalean daudenei argi egitera,

gure oinok bake bidean zuzentzera».

Oparigaien gainekoa

Begi onez begira, Jauna,
oparitarako ekarri dizkizugun dohain hauei,
beroiak hartuta, bekatutik garbi gaitezen,
eta zure Semearen etorrera ospetsua
bihotz leialez itxaron dezagun.
Errege bizi baita.

Prefazioa: Abendualdiko II.a, or.

Jaunartze ant.

Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena.
Lk 1, 68

Jaunartze ondorengoa

Zure Eukaristiaz berritu gaituzu, Jauna;
iguzu, zeure Semearen jaiotzarako prestatu gaituzunok,
Haren betiko dohainak pozik har ditzagula.
Jesu Kristo.

Arratsaldean, Eguberri bezperako Meza ematen da (or.).